

BERNARDO ATXAGA

GÉNIE

Alfabetoaren zazpigarren letraraino iritxi eta Diderot-ek eraberritutako **Génie** hitzarekin amaitzen nuen Otsaileko emanaldia, eta agian ez da gaizki etorriko -hotz bero batzuk izan baititugu orduz geroztik-, bukaera hari eutsi eta gai berdinarekin jarrai dezadan. Azken batean, **gogoratu** ere G letraren gatibu da, eta eskubiderik ez zaigu falta. Goazen bada, aurrekoa pittin bat gogoratu, pauso berri bat ematera.

Delako jenialtasuna ez zen antza hitz zehaztu erraza, eta Enziklopediaren buru egin zuen pentsalari zorrotz hari ere bere lanak eman zizkion euskal antzerki zaharraren erantzun ospetsua -zer zen? Bada zerako zeraren zera- alde batetik edo bestetik haustea. Ba al dauka irudimenarekin zer ikusirik?-galdetzen zuen Diderot-ek gaiari buruz idatzitako bere bigarren eta azken artikuluan. Eta ezetz erabaki zuen, jenialtasunak ez zeukala irudimenarekin zerikusirik. Eta sentsibilitatearekin?-galdetzen zuen hurrena. Eta ezetz berriro. Zentzuarekin? Ezta, are eta gutxiago. Gustuarekin? Ez, ezta pentsatu ere, ezerekin baino gutxiago zeukan gustuarekin zerikusia, zeren eta jenialtasunak -oso azpimarragarria da xehetasun hau- ezin baitzuen lanaren edo ahaleginaren poderioz lortu ahal ziren dohainekin anai arrebatasunik eduki. Ez, dohain aztergaitz, sekretu eta berezi bat zen, edo beste modura adierazita, arrazoiak, esperientziak eta ikasteko zaletasunaz aurrera zegoen naturalezaren opari bat. Diderot-ek Enziklopedian bere dizipulu bati idatzi arazi zion bezala:

“El gusto está a menudo separado del genio. El genio es un don puro de la naturaleza, y lo que produce es la obra del momento; el gusto, en cambio, es obra del estudio o del tiempo; depende del conocimiento de una multitud de reglas establecidas o supuestas; hace producir bellezas que no son más que una convención”.

Gauzak hola -jarraitzen du Dideroten diktadupean ari izan zen dizipuluak- “el genio construye edificios osados que la Razón no se atrevería a habitar, se levanta en un vuelo de águila hacia una verdad luminosa fuente de mil verdades, a las cuales llegará después, arrastrándose, la masa tímida de los sabios observadores”.

Hartaraino zen dohain bitxi eta beste munduko, non -gerora milaka aldiz errepetituko zenez-, Shakespeare bezalako aparteko artistek *kontzientziak bestera* idazten

edo pintatzen zuten, *jakin gabean*, barnean demonioak izaten zituzten *posesoek* bezalaxe.

Gaurko egunetik begiratuta, nahikoa litzateke gogoratutakoarekin **génie** delakoaren aurrean bekokia iluntzeko, zeren -esan dezadan, bide batez bada ere- historiak ondo erakutsi baitu zein leku ilunetara eramán ohi gaituzten hain arrazoiaren kontrako edota hain anti-intelektualak diren ideiek. Ordea, jainkoek libra nazatela Maisu frantziarraren aurkako joeretatik. Haren garaian -XVIII. mendea, ez ahaztu gero-, beste bataila mota bat jokatzen zen Artearen eta Literaturaren inguruan, eta **Génie** bezalako kontzeptuak asmatu beharra zegoen baldin eta askatasun pertsonalaren alde, hots, Akademiak ezarritako tiraniaren aurka, borroka egingo bazen.

Baina utz ditzagun azken kontu horiek, Diderotek ez baitauka nire defentsaren beharrik, eta jarrai dezagun -gogoratu, G letraren barnetik betiere- jenialtasunaren teoriarekin. Zergatik hartu zuen teoriak halako indarra?, hori da orain egin dezakegun galdera. Zeren, jakina, hori ere ez da ahaztu behar, teoria horrek izugarriko arrakasta **izan** baitzuen, eta gaur egungo idazle edo artistaren ulermen eta balorazio soziala *génie* delakoaren eredu barrena egiten baita. Alderdi guzti horiek argitzeko, erromantikoez hitzegitea beste erremediorik ez zaigu geratzen.

Otsaileko emanaldian zehatzago adierazi genuenez, mugimendu erromantikoak-subjetibotasunaren garrantzia azpimarratu, zabaldu egin zuen ezagupideen zerrenda: aurrerago, ilustrazioaren garaian eta, Arrazoiak erabat betetzen zuen lekuan, beste tresna edota ahalmen batzuk azaldu ziren, Irudimena eta Intuizioa, kasu, eta baita Sentimendua bera ere. Praktikan, arlo epistemologikoaren baitako aldaketa horrek Urliá poeta edo Sandia artistaren goratzea ekarri zuen: inork ezagutu ahal bazuen mundua, hori poeta edo artista zen, hots, ezagupide haiek beste inork baino gradu handiagoan zeuzkan gizabanakoak. Gainera, bistakoa zen ikuspuntu horren zuzentasuna, zeren poeta edota artistek beren ahalmen guzti horien ondorio zen beste Goi Ahalmen bat erakusten baitzuten, hots, *orijinaltasuna*, bakan eta inoren pareko izan ez eta bere barrutiak *egia berriak*, obra berriak, ateratzen dakienaren ahalmena. Hortik erromantikoez bai klasikoei eta bai horien teoria imitatiboiei egin zieten ukazioa (Nola begiratu atzera, nola jarraitu lehengo egileei altxorra norberarengan zegoela?); eta

hortik, baita ere, Dideroten teoriakiko zaletasuna. Jenialtasunak laburtu egiten zuen hitz batean bereiek pentsatzen zutena.

-El genio se levanta en un vuelo de águila hacia una verdad luminosa fuente de mil verdades- irakurtzen zuten erromantikoez. Eta sutsuki egiten zuten buruarekin baitetz.

Ordea orain arteko G letra honetan, hala Dideroten jatorrizko teorian nola haren ideiak *loreak udan ihintza bezala* zupatu zuten erromantikoen kasuan, ez zeuden G guztiak. Ez zegoen, esate baterako, **Gizartearen G** garrantzitsua. Komeni da, beraz, hurrengo letrara pasa eta hutsune horri buruz zerbait esatea.

HUTSUNEA

Hainbeste enfasi jartzen zuten subjektibotasunean, hartaraino ziren indartsu -Kant, Adam Smith eta beste zenbait pentsalari ondoen-, indibidualtasunaren aldeko ideiak, non ahaztu egin baitzitzaizen guzti Aristotelesen garaietatik jakina zena, alegia gizon eta andrezkoak gizarte animaliak ginela, animalia politikoak, eta ez zegoela gizartearen eragin positibo zein negatiborik gabeko indibidualtasunik.

Gauzak hola, eta ikusi den bezala, Diderotek atera egin nahi izan zuen mundu honetatik bere zorioneko *génie* hura; bazirudien, bere argudioak irakurrita, dohain hura behin eta betirako ematen zela, ipuinetan amandreek ukitu majiko baten bitartez egiten duten bezala; ezin zela, kasu, jenialtasunik *erakarri* giro eta baldintza apropos batzuren bitartez. Ordea, zinez beste mundukoa ote zen gauza haundi eta ederrak egiteko bidea ematen zuen dohain hura? Sikierarik ere sujetoaren egoera ekonomikoarekin, ez al zeukan harremanik?

Erantzuna segituan emanez, horixe bazuela. Urrutirago joan gabe, andrezkoa zen harreman horren froga: ehuneko berrogeitamarra edo gehiago zenbakiz, baina ehuneko bata ere ez *génie* zutenen artean. Batzuk, Schlegel bezala, ohartu egin ziren datu hark planteiatzen zuen arazoaz, baina ez zioten zuzen erantzun. Schlegelek berak, andrezkoaren egoera soziala ahaztu eta metafisikara joaz, “andreak gizonak baino poesia gehiago zeukala bere baitan”, idatzi zuen, eta “ez zuela, beraz, poesiaren bila ateratzeko premia gehiegirik”.



Gizarteari buruzko hutsune hau soilik iraganeko kontua balitz, gaitzerdi litzateke, eta gainera, berriro diot, sekula ez nintzateke orduko jokaerak gogor juzkatzera. Ordea gaur egun ere gogoratu aurreko letran esandakoa, *génie* delako eredu barrena ulertzen dela oraindik idazlea edo artista, ia berdin gertatzen da. Nahiz tartean Marx-en teoriak zabaldu, nahiz Diderot edo erromantikoen teoriak izugarri tribializatu izan, egungo literaturaren edo artearen ideologiak -hots, ideia dominanteak-, azpimarratu egiten du beti indibidualtasuna, eta ezeztatu, berriz, gizarteak edozein obratan duen parte. Ideologia horrek ez du -pentsa dezagun koadro batean, errazagoa da eta-, obraren faktore nagusia, gizartearen parte hori -oraingo eta, batez ere, lehengo gizartearen parte hori-, aintzat hartu nahi, eta ondorioz historiatik ateratzen ditu obra eta artista, aurrekoei ezer zor ez balie bezala. Aitzitik, enfasia jartzen du faktore tiikienean. Artista jakin horrek aportatu duen *berritasun* edo aldaketa tiikiak, horrek du garrantzia gaurko artearen edo literaturaren ideologiarentzat.

Beraz, eta aipatu xehetasunagatik besterik ez bada ere, ez dut gezurrik esan Diderot edota Erromantikoek asmatutako ereduaren iraupen luzeaz aritu naizenean. Jakina ez dela, gizartearen eraginari buruz orain daukagun ahaztura, lehengo neurritaraino iristen, baina funtsean berdin berdina da. Funtsean, hori da, *orijinaltasun* hitzaren inguruan esan daitekeen guztian. Zeren, hori bai, zenbat eta *gizarte* gutxiago egon obra batean, hainbat eta pertsonalago obra, hainbat eta bereziago, hainbat eta orijinaltasun gehiagoko.

Mintzatuko nintzateke gustora Orijinaltasunaz, eta baita ere bere etsai gorria den Plajioaz, non -esana geldi bedi bide batez-, obrak *gizarte* izugarri daukan; baina urruti gelditzen zaizkit oraindik O eta P letrak, eta hobe dut aurrean ditudan hiru letrak **jan eta Idazle Jaiakotuen Konstante** batzuk aipatzea.

IDAZLE JAIKOTUEN KONSTANTEAK

Asko dira Diderot eta Erromantikoen eredu bete bete bereganatzen duten Idazle Jaiakotuen Konstanteak, eta zail litzaidake den denen zerrenda luzatzea. Halere hemen dihoaz, muestrarako balioko dutelakoan, burura oraintxe bertan etortzen ari zaizkidan batzuk:

-*Artista hitza gustatu egiten zaie, eta honoko esaldi hau bezalakoak entzuten zaizkie batzuetan: Ni ez naiz pintore, zeren pintore edozein izan bait daiteke, brotxa batekin etxeak pintatzen ibiltzen dena ere bai. Horregatik, nahiago dut artista hitza. Oro har, konstante hau gainbehera dihoa. Pintore, idazle edo musiko serioenak oso gutxi erabiltzen dute. Andaluziako abeslari folklorikoak, berriz, asko.*

-Maite duten beste hitz bat: *sortzaile*. Jeneralean

pintore, musiko edo idazle huts baino zerbaite gehiago direla adierazteko erabiltzen dute. Ni **ez naiz idazlea bakarrik, ni sortzailea naiz, idazten dudanean sortu** egiten dut... deklaratzeko dute, eskuarekin figurak eginez, erabat moztuta gelditu baino lehen. Ez dakite zer den sortzaile izatea, baina, hori bai, sortzaile izan nahi dute kosta lain kosta.

-Edozein aitzeki dela eta, bitxi eta apartekoizat jotzen dute beren burua. *Idaztea bakardadea da, idazlea bakardadera kondenatua dago*, esaten dute serio serio, gainerako jendea beti plazan dantzari ibiliko balitz bezala. Oro har, arotzak eta mekanikoak baino gehiago hitzegiten dute beren lanaz, eta -okerragoa dena- ukitu esoterikoak ahaztu gabe. Aukera ematen badiete, inolako lotsarik gabe kontatzen dute beren bizitza hitzaldi edo mahain inguru bat iragarria dagoen saloiren batean.

-Emozionatu egiten dira, *sakratu* hitza ezpainetan, iragan garaietako idazle baten eskuizkribua ukitzerakoan. Baita, agian, erretratoz bakarrik ezagutzen zuten koadro bat bertatik bertara ikusteko aukera daukatenean ere. Grabatu edo litografia erakusketek, berriz, ez diete halako graziaz egiten.

-Norbait mendretu edo flakatu nahi dutenean, delako horren obrari antzematen zaizkion eraginak aipatzen dituzte. *Baina ez pentsa txarrerako esaten diadanik* -gaineratzen dute imintzioka-, niri oso ondo iruditzen zaidak. Denok dizkiagu geure eraginak. Ordea berari antzeko komentarioren bat egiten diotenean, zurbildu egiten da, eta ahalik eta lasterrena aldatzen du gaia.

-Zenbaitetan, kausa haundiren bat besarkatzen dute, beraiei batere axola ez dien gehiengo horrek harremanatua dagoena, eta haien poeta edo pintore ikur bihurtzen dira. Fama lortzen badute, **ondo. Bestela**, berriz, auskalo, edozein gauza.

-Plajioa dela eta, ideiak oso garbi daukate. Itxusi dago, eta gainera modu horretan ez da obra onik sekula sortu.

Jarrai nezakeen Idazle Jaiakotuen Konstanteak aletzen, baina hor non, azkeneko hori zela eta, hurrengo letrakoa den **Lautreamont** idazlearekin gogoratu eta ohar bat egiteko premia sortu zaidan. Agur, beraz, I, J eta K letra barregarriak, alda gaitezen L-ra.

LAUTREAMONT

Pabeko poetak beste liburu eta egileei hartu zizkien bere *Maldororrek*o kantuen hainbat eta hainbat pasarte, eta behin ere ez zuen ukatu bere jokaera. Berea da, hain zuzen ere, esaldi ospetsu hura: *Plajioa beharrezkoa da. Progresoak inplikatu egiten du.*

Guztiarekin, inori ez zaio otutzen bere kantu haiek gutiestea. Surrealistak erreskatatu zutenetik, Lautreamont-en poesia mugarriztat hartzen da literaturaren historian.

Gauzak hola, egin dezadan nire oharra: plajioak eta plajioaren inguruko guztiak ez du, nire ustez, inolako argirik ematen obraren kalitatea aztertzeke garaian. Obra baten balioa beste nonbait dago, ez beste egile edo liburuekiko harreman estu edo ez estuan. Hori konprenitzen ez duenak ez du literatura ez ezagutzen, ez maitatzen. Eta, jakina, nik plajioa aintzat hartu badut ez da izan, inola ere, holako helburu xeblearen atzetik, baizik eta arazo sozial bat argitzeko nahiáz, *artistaren eta gizartearen* harremana aztertzeke ekinean -hemen bai- oso argigarri gertatzen delako.

Baina utz dezagun arazo honen lodiena -lehen agindu bezala- O eta P letrara iristen naizenerako, eta gonpara dezagun bitartean zenbat bereizten zen, Lautreamont bezalako plajiatzaile jakin batengandik, orijinaltasuna banderatzat asintzen zuen idazle *arrunt* bat. Eta horretarako, zergatik ez aukeratu -gainera M-ren atarian gaude-, *voler une pensée*, un mot, doit etre considéré comme un crime en littérature deklaratzeko zuten Alfred de Musset hura? Ikus dezagun zer dakarkien Roland de Chaudenayren *Dictionnaire des plagiaires* delakoak.

MUSSET

Aurren aurrena, eta hiztegi egileari sinestu behar baldin badiogu, bere laguna zen George Sand idazlesari kopiatu zion. Ikus eta alderatu bi pasarteak:

"Ton coeur, ne le tue pas (...), afin qu'un jour tu puisses regarder en arriere eta dire comme moi: J'ai souffert souvent, je me suis trompée quelquefois, mais j'ai aimé. C'est moi qui ai vécu et non un etre factice, créé par mon orgueil et mon ennui"

(George Sand-ek Musseti)

"On est souvent trompé en amour, souvent blessé et souvent malheureux; mais on aime, eta quand on est sur le bord de sa tombe, on se retourne pour regarder en arriere, et on se dit: J'ai souffert souvent, je me suis trompé quelquefois, mais j'ai aimé. C'est moi qui ai vécu, et non pas un etre factice, créé par mon orgueil et mon ennui"

(Mussetek teatro obra batean)

Agian zuritu liteke lagunari (edo amorante ez hain txintxo bati), egindako lapurreta, baina nola zuritu Bandello, Couvray, Boccacio eta beste hainbati egin omen zizkion kopiak? Jakina, ondo iruditzen zaigu bere jokaera -gainera, kopiatutako pasarteak huskeriak dira-, baina deigarria egiten zaigu bere *teoria eta praktikaren* artean zegoen aldea. Zergatik mintzatzen zen hain harro eta gogor *un mot* ohostutzen zutenen aurka? Bada, seguru asko, bere posizio sozialari eutsi nahi ziolako. Hara bada, hemen dugu berriro *gizarte*a, bagabiltza osteria ere *gizarte* horrek plajioaren fenomenoarekin zeukan harremanarekin bueltaka. Baina hurrengoan izan beharko, gaurko nahikoa egin dugu eta.

JARRAITUKO DU

